# Akta

**UDAL OSOKO BILKURA** SESION PLENARIA MUNICIPAL

**TOKIA / LUGAR:** Madariaga Dorretxea
**EGUNA / FECHA:** 2018/12/26
**HASIERA / INICIO:** 19:00
**AMAIERA/FINAL:** 19:30

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**ALKATEA/EL ALCALDE:**
Aitor Aretxaga Telletxea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
Iñaki Inzunza Urrutia (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)
Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Víctor-Martín Amparan Álvarez

**IZAERA / NATURALEZA:** Ohikoa / Ordinaria
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** Lehena / Primera

| Busturiko Madariaga Dorretxean, aipatu egun eta orduan, Alkate jauna buru zela eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udaleko Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udalbatzako Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.<br>Alkate jaunak aginduta, hasiera eman zitzaion bilerari, zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, eta akordio hauek egin ziren: | En la Torre Madariaga de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.<br>De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos: |
|---|---|
| **1.- Aurreko saioko akta.-** | **1.º.- Acta de la sesión anterior.-** |
| Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen 2018ko azaroaren 28ko saioko akta onartzea. | El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 28 de noviembre de 2018. |
| **2.- Alkatetza-dekretuak.-** | **2.º.- Decretos de la Alcaldía.-** |
| Ondorengo alkatetza-dekretuen berri eman zitzaion Osoko Bilkurari:<br>- 50/18, zeinaren bitartez 59/17, 80/18, 83/18, 84/18, 85/18 eta 86/18 espedienteetako hirigintza-lizentziak eman diren.<br>- 51/18, zeinaren bitartez 77/18, 88/18, 89/18, 90/18, 91/18 eta 93/18 espedienteetako hirigintza-lizentziak eman diren.<br>- 52/18, zeinaren bitartez 82/18 espedienteko hirigintza-lizentzia eman den.<br>- 53/18, zeinaren bitartez 92/18 espedienteko hirigintza-lizentzia eman den. | El Ayuntamiento Pleno fue informado de los siguientes decretos de la alcaldía:<br>- N.º 50/18, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 59/17, 80/18 y 83/18, 84/18, 85/18 y 86/18.<br>- N.º 51/18, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 87/18, 88/18, 89/18, 90/18, 91/18 y 93/18.<br>- N.º 52/18, por el que se concede la licencia urbanística del expediente 82/18.<br>- N.º 53/18, por el que se concede la licencia urbanística del expediente 92/18. |
| **3.- Tokiko Gobernu Batzordearen akordioen berrespena.-** | **3.º.- Ratificación de acuerdos de la Junta de Gobierno Local.-** |
| Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen 2018ko abenduaren 5eko Tokiko Gobernu Batzordeak egindako akordio hauek berrestea:<br>***A) 12.- Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetako Foru Diputatuaren ebazpenaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zeinaren bidez ukatzen baita Busturiko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko otsailaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren aurrean planteatutako erantzukizun-akzioa, bere ezohiko funtzionamenduak eragindako kalte-galerengatik San Antonioko enklabea ezabatzeko espedientearen ebazpenean, 8/1993 Foru Arauaren azken bigarren*** | El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó ratificar los siguientes acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local, en sesión de 5 de diciembre de 2018:<br>***A) 12.º.- Recurso contencioso-administrativo contra la resolución de la Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, por la que se niega la acción de responsabilidad planteada por el Ayuntamiento de Busturia ante el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Bizkaia el 26 de febrero de 2018, en relación con los daños y perjuicios causados por su anormal funcionamiento en la resolución del expediente de supresión del enclave de San Antonio iniciado ex lege por la*** |

***xedapenak ex lege hasitakoa eta 2017ko otsailaren 28ko Foru Diputatuen Kontseiluaren ebazpenaz amaitutakoa.-***

*2018ko urriaren 29an jasotako ukapen-jakinarazpenean adierazten zen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar zitekeela Jurisdikzio horretako Bilboko Epaitegietan (eta, hala, bide administratiboa agortzen zen), bi hileko epean, erabakiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 45. artikuluaren eta horrekin bat datozenen arabera, eta, aukeran, aipaturiko errekurtsoaren aurretik, aurretiazko errekerimendua aurkez zitekeela, bi hileko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.*

*Hori guztia ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak hauxe erabaki zuen, aho batez:*

*1.- Diputatu Kontseiluaren aurrean aurretiazko errekerimendua aurkeztea, aipatu legearen 44. artikuluan oinarrituta, administrazio-organo horri baitagokio, gure ustez, Busturiko Udalak planteatutako erantzukizun-akzioa ebaztea, eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenaren eskumena izango litzateke ukoaren legezkotasuna onartzea, Bilboko Epaitegiena izan beharrean.*

*2.- Hala badagokio, modu subsidiarioan edo aukerakoan, Busturiko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluan 2018ko otsailaren 26an aurkeztutako erantzukizun-akzioaren ukapenaren edo baztertzearen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurkezpena onartzea.*

*3.- Osoko Bilkurari egingo duen hurrengo saioan jakinaraztea, aipatua berresteko.*

***B) 14.- Erantzukizun-akzioa Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean.-***

*Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ondare-erantzukizuneko akzioa egikaritzea Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean, 2017ko abenduaren 14ko akordioaren hirugarren baldintza onartzeagatik (akordioa 2018ko urtarrilaren 19an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean), bai eta San Antonioko*

***disposición final segunda de la Norma Foral 8/1993 y finalizado en ejecución de la Sentencia 316/13 por Acuerdo del Consejo de Diputados de 28 de febrero de 2017.-***

*En la notificación denegatoria recibida el 29.10.2018 se hacía constar que contra la misma, que agotaba la vía administrativa, se podía interponer recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de Bilbao de dicha Jurisdicción en el plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente a aquél en que tenga lugar la notificación, de acuerdo con el artículo 45 y concordantes de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa y que, potestativamente, con anterioridad al recurso citado, se podía presentar requerimiento previo en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación, de conformidad con lo previsto el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio.*

*A la vista de todo ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:*

*1.º.- Presentar requerimiento previo con fundamento en el art. 44 LJ ante el Consejo de Diputados, en el convencimiento de que a tal órgano administrativo le corresponde la resolución de la acción de responsabilidad planteada por el Ayuntamiento de Busturia, con la consiguiente competencia del TSJ del País Vasco y no de los Juzgados de Bilbao para conocer la legalidad de la denegación.*

*2.º.- En su caso, subsidiaria o alternativamente, aprobar la interposición del recurso contencioso-administrativo contra la denegación o desestimación de la acción de responsabilidad planteada por el Ayuntamiento de Busturia ante el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Bizkaia el 26 de febrero de 2018.*

*3.º.- Dar cuenta al Ayuntamiento Pleno en la primera sesión que celebre para su ratificación.*

***B) 14.º.- Acción de responsabilidad ante las Juntas Generales de Bizkaia.-***

*La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó ejercer la acción de responsabilidad patrimonial frente a las Juntas Generales de Bizkaia como consecuencia de la aprobación de la clausula tercera del acuerdo de 14 de diciembre de 2017, (publicado*

*enklabearen ezabaketa onartzeko espedientean izandako berandutzeengatik ere; izan ere, de facto luzatu zen judizialki irmoa izan arte, 2016ko azaroaren 23ko autoaren bitartez, Auzitegi Nagusiak Sukarrietako Udalak aurkezturiko kasazio-helegitea gaitzetsi ostean.*

*en el Boletín Oficial de Bizkaia de 19 de enero de 2018), así como por las dilaciones en el expediente de aprobación de la supresión del enclave de San Antonio, prolongado "de facto" hasta la declaración como firme judicialmente del auto de 23 de noviembre de 2016, tras rechazar el Tribunal Supremo el recurso de casación interpuesto por el Ayuntamiento de Sukarrieta.*

**4.- Lankidetza-hitzarmena Urdaibai Futbol Taldearekin.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Urdaibai Futbol Taldearekiko lankidetza-hitzarmena onartzea, zeinaren bidez aipatu klubak Itxas-Adarreko kirol-instalazioak erabiliko dituen. Halaber, hitzarmen horren baitan, Udalak astean behin garbituko ditu aldagelak, bai eta zelaiaren marrak margotu ere.

**4.º.- Convenio de colaboración con Urdaibai Fútbol Taldea.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar el Convenio de colaboración con el Urdaibai Fútbol Taldea para el uso de las instalaciones deportivas de Itxas-Adar, aceptando dentro de las labores del Ayuntamiento la limpieza (una vez a la semana) de los vestuarios y el pintado de las líneas del campo.

**5.- Euskararen erabilerarako normalizazio-plana.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen 2018-2022 epera begirako Busturiko Udalaren euskararen erabilerarako Normalizazio Plana onartzea.

**5.º.- Plan de normalización del uso del euskera.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar el Plan de Normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento de Busturia para el periodo 2018-2022.

**6.- Busturialdea Harrera Eskualdearen mozioa.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen EH-Bilduko zinegotziek izapidetutako eta Busturialdea Harrera Eskualdeak aurkezturiko ondorengo mozioa:

"BUSTURIALDEA HARRERA ESKUALDEA

Milaka dira egunero, sorterria atzean utzita, lurra eta itsasoa zeharkatzen dutenak bizi hobe baten bila. Dakigun bezala, orain ez horrenbeste urte, ehunka izan ziren gerrari eta miseriari ihes egin zioten Busturialdeko herritarrak. Badakigu, halaber, poemak dioena: «Nekez uzten du bere sorterria sustraiak han dituenak». Inor ez da bere ingurutik eta ingurukoengandik atseginez aldentzen, ondo eta duin bizi den artean. Gerra, gosea, esplotazioa, lehengaien agortzea, etorkizunik eza... Neokolonialismoaren ondorio gordinek ekartzen dituzte Euskal Herrira etorkin horiek guztiak. Erakunde zibilen boluntarismoari eta herritarren auzolanari esker, hainbatek aterpea eta oinarrizko beharrak asetzeko aukera izan dute. Baina beste asko eta asko oraindik kale gorrian daude, aterperik, lanik eta paperik gabe.

**6.º.- Moción de Busturialdea Harrera Eskualdea.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó la aprobación de la siguiente moción presentada por Busturialdea Harrera Eskualdea y tramitada por los concejales de EH-Bildu:

"COMARCA BUSTURIALDEA HARRERA

Son miles los que cada día, dejando atrás su país de origen, cruzan tierra y mar en busca de una mejor vida. Como sabemos, ahora no hace tantos años, fueron cientos los vecinos de Busturia que huyeron de la guerra y la miseria. Sabemos también, como dice el poema: "difícilmente deja su patria aquél que tiene allí sus raíces". Nadie se aleja por placer de su entorno y de los de su entorno mientras viva bien y dignamente. La guerra, el hambre, la explotación, el fin de las materias primas, la falta de un futuro… las crudas consecuencias del Neocolonialismo es lo que trae a todos estos inmigrantes a Euskal Herria. Gracias al voluntarismo de las instituciones civiles y al trabajo en común de los vecinos, muchos han tenido la oportunidad de tener asegurados el alojamiento y las necesidades básicas. Pero muchos otros aún están en la calle, sin cobijo, sin trabajo y sin

Bidegabekeria ikaragarri horren aurrean ez ikusiarena egin ezinik, urriaren 13an Busturialdea harrera eskualde bihurtzeko lehen pausua eman genuen. Bilbon kalean geratu behar ziren hainbat etorkini Gernikan harrera duina egitea lortu zen. Larrialdi egoera horren aurrean, egun batetik bestera, herritarrek emandako erantzuna gogoangarria izan da: erlojuaren kontra aterpea eta oinarrizko beharrizanak asetzeko baliabideak eskaintzea lortu zen. Hala ere, ezin dugu ahaztu hori hasiera baino ez dela, oraindik Bilbon jende mordoa kalean baitago eta etengabe heltzen baitira etorkin gehiago Euskal Herrira.
Hori guztia kontuan hartuta, Busturialdeko Harrera Mugimenduak (BHM) ezinbestekotzat jotzen du instituzioek gai horrekiko daukaten erantzukizuna bere gain hartzea eta eskura dituzten baliabideak eskaintzea. Arrazismoa baztertu, interkulturalitatea sustatu eta giza eskubideak errespetatzeko neurriak hartzeko eskatzen diegu erakunde publikoei.
Zehazki, Busturialdera datozen etorkinek harrera integrala jaso dezaten, BHMk zuekin negoziaziorako eta elkarlanerako bidea zabaldu nahi du, ondoren datozen puntuak elkarrekin eztabaidatzeko eta horien gaineko akordioak egiteko:
1.-HARRERA PROTOKOLO INTEGRALA sortu. Etorkinak eskualdera edo herrira heltzen diren unean harrera duina egin eta protokoloa abian jarri. Aipatutako protokoloari dagokionez, herri bakoitzak berea izango du, baina guztietan lehentasunak logika baten arabera antolatuta egongo dira.
Eskualdera heltzen diren pertsona migratzaileei eskaintzen zaien administrazio-arloko babesa bermatu, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/1008 Legearen bitartez eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren laguntza- eta zerbitzu-zorroari buruzko Dekretuaren bidez: informazioa, balorazioa, diagnostikoa eta orientabide-zerbitzua:
-Erroldaren gestioa martxan jarri.
-Osasun-zerbitzuak eskuragarri izan.
-"Administrazio-egoitza ziurtagiria" edo "herritar agiria" lortu.
-Oinarrizko beharrizanak ase.
-Prestakuntzarako aukerak eskaini.
Gizarte-arloan:
-Sare sozio-afektiboa abian jarri.
-Busturialdeko Harrera mugimenduarekin harremanetan jarri.

papeles.
Ante este tremenda injusticia, sin poder hacer la vista gorda, el día 13 de octubre dimos el primer paso para convertir Busturialdea harrera en comarca. Se logró dar una acogida digna en Gernika a los inmigrantes que debieron quedarse en la calle en Bilbao. Ante aquella situación de emergencia, la respuesta dada por los vecinos de un día para otro, es memorable: se logró, a contrarreloj, ofrecer recursos para cobijarse y satisfacer las primeras necesidades. A pesar de todo, no debemos olvidar que esto no es más que el principio, que todavía sigue habiendo gran cantidad de gente en Bilbao en la calle, y que de forma continua están llegando inmigrantes a Euskal Herria.
Teniendo en cuenta todo esto, el Movimiento Busturialdeko Harrera (BHM) considera imprescindible la responsabilidad que tienen las instituciones sobre este tema y que éstas ofrezcan los recursos de que disponen. Pedimos a los organismos públicos que dejen de lado al racismo, promuevan la interculturalidad y adopten medidas para respetar los derechos humanos.
En concreto, para que los inmigrantes que vengan a Busturialdea puedan recibir una acogida integral, BHM quiere abrir el camino para negociar con Udes. y poder realizar un trabajo en común, para debatir juntos los acuerdos que se dirán a continuación y llegar a un acuerdo, se pondrá sobre la mesa como punto de partida:
1.- Crear HARRERA PROTOCOLO INTEGRAL. Poner en marcha el protocolo y llevar a cabo una acogida integral en el momento en que los inmigrantes lleguen a la comarca o al municipio. Cada municipio contará con su propio protocolo, pero en todos ellos figurarán en orden las necesidades, dentro de una lógica.
Asegurar la protección en el ámbito administrativo que se ofrece a las personas migrantes que lleguen a la comarca, mediante la Ley 12/2018, sobre Servicios Sociales y mediante el Decreto sobre la bolsa de servicios y prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales: información, valoración, diagnóstico y servicio de orientación:
- Poner en marcha la gestión del padrón.
- Que los servicios de salud estén disponibles.
- Obtener el "Certificado de residencia administrativa" o el "Certificado de vecindad".
- Cubrir las necesidades primarias.
- Ofrecer opciones de formación.

2.-Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari gure Eskualdera datozen etorkinei bideratutako Baliabideen gida eguneratzeko eta sustatzeko eskatu. Hainbat hizkuntzatan egongo dela bermatu.
3.- Arartekoaren gomendioei men eginez, bizitzeko lekua duten pertsona horien erroldatzeko eskubide historikoa bermatu, kasu horietan errolda prozesua lehen egunetik martxan jarriz.
Era berean, bizitzeko lekurik ez dutenei ere eskubide hori bermatu "errolda sozialaren" bitartez. Horrela, inklusioa lortzeko lehen pausuak emango dira eta oinarrizko zerbitzuak guztion eskura jartzeko bidea zabalduko da.
Bazterketa-egoerak ekidite aldera, ezinbestekoa da hainbat hizkuntzatan eskaintzea baldintzei, betekizunei eta horiek izapidetzeko beharrezko dokumentazioari buruzko informazioa. Argi utzi behar da nahitaezkoa dela agiriak eguneratuta izatea, bai eta egoera erregularizatua ez dutenei dokumentazioa eguneratuta ez izateak ekarri diezaiekeen ondorioak azpimarratu ere. Adibidez, Udalak, 2 urte igarotzean, errolda eguneratu beharko dutela jakinarazi.
4.-ZURRUMURRURIK EZ! Sarearen parte izan eta horren inguruko dinamikak abian jarri, hainbat esparrutan eta adin guztietako jendearekin. Gaur arte hauek dira sarearen parte diren erakundeak: Aduna, Alegia, Alkiza, Anoeta, Asteasu, Arrasate, Basauri, Bilbo, Donostia, Eibar, Errenteria, Getxo, Hernani, Ibarra, Larraul, Ordizia, Pasaia, Portugalete, Tolosa, Zarautz, Villabona eta Gasteiz Udalerrietako udalak, hiru Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila nahiz Familia Politika eta Aniztasuna Arloa, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU) eta Immigrazioaren Euskal Behatokia.
Aipatu guztiarekin, sarean egoteaz gain, gai horren gainean hartzen diren konpromiso politiko eta ekonomikoak bermatzeko eskatzen dugu. Plangintzak osatu, hainbat dinamika abian jarri eta behar den laguntza ekonomikoa sare horretara bideratu.
5.-Udalek "herritar agiria" egin eta egoera irregularrean dauden eta erroldatzeko zailtasunak dituzten etorkinen eskura utzi, udalerri horretan bizi direla froga dezaten. Hala, herrian bertan bizi baina egoera irregularrean dauden etorkinen harrera erraztuko litzateke hasiera-hasieratik, bai eta bazterketa-arriskua saihestu ere. Etorkin horiek, pasaportea lortu bitartean, "herritarren agiria" erabiliko lukete herrira heltzen diren lehen egunetik, berton bizi

En el ámbito social:
- Poner en marcha la red socio-afectiva.
- Ponerse en contacto con el movimiento Busturialdeko Harrera.
2.- Solicitar a la Mancomunidad de Servicios Sociales de Busturialdea que actualice la guía de recursos dirigida a los inmigrantes que vienen a la comarca. Garantizar que estará en diferentes idiomas.
3.- Acatando las recomendaciones del Ararteko, garantizar el derecho histórico a empadronarse a aquellas personas que tengan residencia, en estos casos poniendo en marcha el proceso de empadronamiento desde el primer día.
Asimismo, garantizar este derecho también a los que no tengan residencia, mediante el "padrón social". De esta forma, se dan los primeros pasos para conseguir la inclusión y se abre el camino para poner en manos de todos los servicios básicos.
Es indispensable, para evitar situaciones de marginación, ofrecer, en diferentes idiomas, información sobre las condiciones y obligaciones y la documentación necesaria para la tramitación de éstas. Dejando claro que es imprescindible que la documentación esté actualizada, subrayando las consecuencias que puede acarrear el no tener la documentación actualizada a aquellos que no estén en una situación regularizada. Por ejemplo, comunicando el Ayuntamiento que deben actualizar el empadronamiento, transcurridos los 2 años.
4.- ¡SIN RUMORES! Ser parte de la red y poner en marcha las dinámicas en torno a ésta en los diferentes ámbitos y con personas de todas las edades. Hasta la fecha, estas son las instituciones que forman parte de la red: Aduna, Alegia, Alkiza, Anoeta, Asteasu, Arrasate, Basauri, Bilbao, Donostia, Eibar, Errenteria, Getxo, Hernani, Ibarra, Larraul, Ordizia, Pasaia, Portugalete, Tolosa, Zarautz, Villabona y ayuntamientos del municipio de Gasteiz y las tres Diputaciones Forales, así como el Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco. Política Familiar y Diversidad, Universidad del País Vasco (UPV-EHU) y el Observatorio Vasco de Inmigración.
Con todos estos puntos, además de estar en la red, solicitamos que se garanticen los compromisos políticos y económicos que se acepten sobre este tema. Integrar las Planificaciones, poner en marcha las diversas dinámicas y orientar las ayudas económicas necesarias a esta red.
5.- Emitir por los ayuntamientos el "certificado de

direla frogatu, udal esparruak nahiz baliabideak erabili eta beren burua identifikatu ahal izateko.
6.- Udal-etxebizitzak larrialdi-egoeran dagoen pertsona ororen esku utzi -kasu honetan, etorkinak-, nahiz eta egoera irregularrean egon, inor kalean gera ez dadin.
7.- Lanbiderekin herritarrentzako -kasu honetan etorkinentzako- akordioak sinatu, lan-merkatuan txertatu ahal izateko. Eskualdean bertan prestakuntza-saioak antolatu, eta irtenbide profesionalak eskaini. Barrutialde institutuarekin hitzarmenak sinatu, lanbide-heziketako ikasketak bultzatzeko.
8.- Etorkinei euskarri afektiboa emateko gai den herritarren sarea sustatu, arlo horretan lanean diharduten mugimendu eta elkarteekin batera. Halaber, inklusioa errazte aldera, herriko egunerokotasunean parte hartzera animatu. Gernika-Lumo “abegi onaren herria” bihurtu.

vecindad” y ponerlo a disposición de aquellos inmigrantes que estén en situación irregular y que tienen dificultades para empadronarse, y así poder probar que están afincados en ese municipio. De esta manera se facilitaría la acogida desde el principio a aquellos inmigrantes que residen en el municipio, pero que estén en situación irregular y se evitaría el riesgo de marginación. Éstos, desde el primer día que llegasen al municipio y mientras obtienen el pasaporte, podrían utilizar el “certificado de vecindad” para poder demostrar que residen allí, y poder hacer uso de los espacios municipales y recursos y para su identificación.
6.- Poner las viviendas municipales a disposición de todas las personas que se encuentren en estado de emergencia, en este caso de los inmigrantes, a pesar de que su situación sea irregular, para que nadie quede en la calle.
7.- Firmar acuerdos con Lanbide. Para los vecinos y, en este caso, para los inmigrantes, con el fin de posibilitar el acceso laboral. Organizar jornadas de formación en la misma comarca, ofreciendo salidas profesionales. Firmar convenios con el instituto Barrutialde, promoviendo estudios de formación profesional.
8.- Impulsar una red vecinal que sea capaz de ofrecer apoyo emocional a los refugiados e inmigrantes, junto con movimientos y asociaciones que trabajen en torno a este tema. Y, a favor de la inclusión, animar a tomar parte en la cotidianidad del pueblo. Convertir a Gernika-Lumo en “el pueblo de la buena acogida”.

**7.- Galde-eskeak.-**

Elorrieta jaunak galdetu zuen zein diren Madariaga Dorretxeko kanpoaldeko ingurua egokitzeko emandako lizentziak barne hartzen dituen obrak.
Alkate jaunak azaldu zion urte hasieran Errieneko bidea konpontzeko eskatu zitzaiela Patronatuko arduradunei; izan ere, kalteak Zentrotik datorren trafiko astunak eta ur-bilketa eskasak eragin dituzte. Orduan, lan horiek egingo zirela erantzun zioten, Madariaga Dorretxean aurreikusita zituzten beste obra batzuekin batera. Gauzak horrela, harridura eta sumindura sortu dira orain eskatu diren 150.000 €-tik gorako obra-lizentzietan bidearen konponketa jasota ez dagoela ikusita; antza, horren arrazoia da ez dagoela baliabide ekonomikorik, ahoz emandako informazio baten arabera. Alkateak erantsi zuen Udalaren kexa idatziz helarazi zaiela

**7.º.- Ruegos y preguntas.-**

El Sr. Elorrieta preguntó qué obras estaban incluidas en la licencia concedida para la adecuación del entorno exterior de la Torre Madariaga.
El Sr. Alcalde le explicó que, a comienzo de año, se solicitó a los responsables del Patronato la reparación del camino de Erriene, dado que sus daños están originados por el tráfico pesado procedente del Centro y la deficiente recogida de las aguas. En aquel momento, le respondieron que se iban a ejecutar esas obras junto con otras que tenían previstas en Madariaga Dorretxea y que la sorpresa y la indignación ha surgido al ver que actualmente se han solicitado varias licencias de obras por un importe superior a 150.000 € y en las mismas no está incluida la reparación del camino municipal, por falta de recursos económicos (según información verbal); dijo que ya se les había trasladado por escrito la queja

dagoeneko, eta Zentroaren arduradunekin bilera bat egingo dela, gaia aztertzeko.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta, adostutakoa oinarri, Alkate jaunak eta neuk, Idazkariak, egiaztatu egiten dudanak, akta hau sinatu dugu.

municipal y que se estaba a la espera de una reunión con los responsables del Centro para analizar el tema.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

| Alkatea/El Alcalde | Idazkaria/El Secretario, |
|---|---|
| Aitor Aretxaga Telletxea | Víctor-Martín Amparan Álvarez |